



Erreferenduma ez da delitua Askatasuna

Botoa ematea ez da delitua. Ez behintzat demokrazian. Horregatik bildu gara hemen.

12 pertsona zigortu egin dituztelako, zergatik, eta demokrazian delitua ez den, eta izan ezin den zerbait egiteagatik.

Elkartasuna adierazteko atera gara kalera, baina gure kezka askoz sakonagoa da. Epai honekin estatuak mezu beldurgarri bat helarazi nahi digu denoi: gure etorkizunari buruzko erabakia noizbait hartzeko itxaropena galarazi nahi digu. Epai eta zigor honekin erakusten ari dira nola joko duten edonoren aurka, baldin eta egunen batean gauzatu nahi bada Kataluniak edo Euskal Herriak ahotsa eta hitza izatea.

Urte askotan Kataluniako erakundeak behin eta berriz saiatu dira estatuko gobernuarekin elkarrizketa bidez egoera konpontzen. 2005ean proposatu zuten estatutua hustu egin zuten; halere, herritar katalanek bozkatu zuten. Baina bozketa honen ondoren ere Auzitegi Konstituzionalaren epai batek ostera desitxuratu zuen. Alabaina, erakunde katalanek elkarrizketaren bideari ez zioten uko egin, herritarren gehiengoak zituen helburuei bide emateko. Estatuaren erantzuna, behin eta berriz, ezezkoa izan zen. Horregatik mobilizazio soziala, masiboa eta baketsua gero eta handiagoa izan zen; mobilizazio horren ondorioz etorri zen 2017ko urriaren 1eko kontsulta, gogor zanpatua eta gaurko epai honekin zigortua. Horregatik esaten dugu epai hau eskarmentu gisa datorrela: hori baita arduradun politikoen eta jendarte zibileko eragileek espero dezaketena, baldin eta estatuko nazioei ahotsa eman nahi badiete.

Hain zuzen ere, Gorenak Altsasuko kasuari buruz eman duen beste epai lotsagarriak agerian utzi du Estatuko botereen benetako interesa: gazte batzuk erabiltzea euskal herritarroi diziplina politikoa ezartzeko, mendekua eta zigorra medio.

Agerraldi hauek deitu ditugun euskal sindikatuok ondo asko dakigu espainiar estatuak zer nolako botere errepresiboa duen, baina estatuko instituzioei mezu argi bat helarazi nahi diegu: ez da sortu euskal herriaren eta herri katalanaren asmo politikoak isilaraziko dituen epairik, ez estaturik.

Gure mobilizazioarekin esaten ari gara kontu honetan azken hitza ez dela zigorra, errepresioa edo mendekua izango. Bilatuko dugu bidea beste herrialdeetako herritarren pareko izateko, guri eragiten digunari buruz erabakitzeko gauza izateko, baita beste estatuarekin harremana izateko moduz ere.

Premiazkoa da mobilizatzea; hortan ari dira dagoeneko Katalunian. Horregatik, elkarretaratze hauek deitu ditugun sindikatuok eutsi egingo diogu demokraziaren, elkarrizketaren eta politikaren aldeko jarrerari, baita printzipio horien aldeko mobilizazioari ere. Horregatik lan munduari dei egiten diogu parte har dezan Gure Esku deitzen ari den mobilizazioetan, batez ere **Donostian datorren urriaren 19an** izango den **manifestazioan**.

Bozkatzea ez da delitua. Preso politikoak askatu!



Ostiralean, urriaren 18



Elkarretaratzeak lantoki guztietan

ELA-LAB-STEILAS-ESK-ETXALDE-HIRU